






**OSALAN**

# **METALAK HOTZEAN LANTZEKO MAKINA-ERRAMIENTEN EGOITZAPENA**

**1215/1997 E.D. arekin bat etortzeko**

## **MANUAL PARA LA ADECUACIÓN DE LAS MÁQUINAS HERRAMIENTAS PARA TRABAJAR LOS METALES EN FRÍO**

**al Real Decreto 1215/1997**



Erakunde autonomiaduna  
Organismo Autónomo del



**METALAK HOTZEAN LANTZEKO  
MAKINA-ERRAMIENTEN EGOITZAPENA**

MANUAL PARA LA ADECUACIÓN DE LAS MÁQUINAS  
HERRAMIENTAS PARA TRABAJAR LOS METALES EN FRÍO

ISBN: 84-931747-0-X



9 788493 174705

**METALAK HOTZEAN LANTZEKO  
MAKINA-ERRAMIENTEN EGOITZAPENA  
1215/1997 E.D.arekin bat etortzeko**

**MANUAL PARA LA ADECUACIÓN DE  
LAS MÁQUINAS HERRAMIENTAS  
PARA TRABAJAR LOS METALES EN FRÍO  
al Real Decreto 1215/1997**



**OSALAN**

**Erakunde Autonomiaduna**  
Organismo Autónomo del



Elaborado por:

**La Fundación INVEMA:**

Fernando Bailach Alcaya  
Patricia Tamés Ortega  
Joseba Erausquin Yabar  
Josu Sasieta Barrenechea

**OSALAN:**

José Pujana Garteiz  
Iñigo Arriaga Segura  
Jesús Ortiz de Urbina Ugarte

Ondokoek landua:

**INVEMA Fundazioa:**

Fernando Bailach Alcaya  
Patricia Tamés Ortega  
Joseba Erausquin Yabar  
Josu Sasieta Barrenechea

**OSALAN:**

José Pujana Garteiz  
Iñigo Arriaga Segura  
Jesús Ortiz de Urbina Ugarte

**Argitaraldia:**

Edición:

1.a, 2000ko abendua

1.º diciembre 2000

©

**OSALAN**

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea  
Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales

**Internet:**

[www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

**Fotokonposizioa:**

Fotocomposición:

Composiciones RALI, S. A.

Particular de Costa, 8-10, 7.º - 48010 BILBAO

**Inprimaketa:**

Impresión:

Estudios Gráficos ZURE, S. A.

Carretera Lutxana-Asua, 24-A - Erandio-Goikoa (Bizkaia)

**ISBN:**

84-931747-0-X

**Lege-gordailua:**

Depósito legal:

BI-200-01

# AURKIBIDEA

## INDICE

Or.  
Pág.

### Sarrera

Introducción .....	9
<b>1. Zati orokorra.</b>	
<b>Makinei ezarri beharreko gutxieneko xedapen orokorrak</b>	
<b>Parte General.</b>	
Disposiciones mínimas generales aplicables a las máquinas .....	11
1. Eragite-organoak	
Organos de accionamiento .....	13
2. Abiaraztea	
Puesta en marcha .....	14
3. Geldiaraztea	
Parada .....	15
4. Objektuen erorketa eta jaurtiketak	
Caída de objetos y proyecciones .....	16
5. Gasak, lurrinak, likidoak edo hautsak isurtzeko arriskua	
Riesgo de emisión de gases, vapores, líquidos o polvos .....	17
6. Makinan sartu eta bertan egoteko inguruneak	
Medios de acceso y permanencia .....	17
7. Eztandak, hausturak	
Estallidos, roturas .....	18
8. Elementu higikorak	
Elementos móviles .....	18
9. Argiztapena	
Iluminación .....	21
10. Gainazal beroak edo oso hotzak	
Superficies calientes o muy frías .....	22
11. Alarma-gailuak	
Dispositivos de alarma .....	23
12. Energia-iturrien bereizketa	
Separación de las fuentes de energía .....	23
13. Seinaleztapena eta oharterazpena	
Señalización y advertencia .....	26

	<u>Or.</u> <u>Pág.</u>
14. Suteak Incendio .....	26
15. Leherketa Explosión .....	27
16. Arrisku elektrikoa Riesgo eléctrico .....	28
17. Zarata, bibrazioak eta erradiazioak Ruidos, vibraciones y radiaciones .....	29
18. Likido korrosiboak edo temperatura altukoak Líquidos corrosivos o a alta temperatura .....	29
19. Esku-erremintak Herramientas manuales .....	30
<b>2. Metalak hotzean lantzeko makina-erremintak. Makina-erremintei ezarri beharreko berariazko xedapenak</b> <b>Máquinas-Herramienta para trabajar los metales en frío.</b> <b>Disposiciones específicas aplicables a las M-H .....</b>	<b>31</b>
Barrualdeak brotxatzeko makinak Brochadoras de interiores .....	33
Gilotina-zizailak Cizallas Guillotina .....	37
Arrabolak kurbatzeko makinak Curvadoras de Rodillos .....	41
Esmerila Esmeril .....	45
Fresatzeko makina orokorrak, kotsola eta bankada finkodunak Fresadoras Universales de Consola y Bancada Fija .....	49
Banda-lixatzaileak Lijadoras de Banda .....	53
Karraskatzeko makina Limadora .....	57
Mandrinatzeko makinak, gurutze erako bankadadunak Mandrinadoras de Bancada en Cruz .....	61
Mandrinatzeko makinak, zutabe higikaridunak Mandrinadoras de Columna Móvil .....	65

	<u>Or.</u> <u>Pág.</u>
<b>Elektrohigatzeko makinak</b>	
Máquinas de Electroerosión . . . . .	69
<b>Mekanizatzeako makinak, zenbakizko kontrolدونak</b>	
Máquinas de Mecanizado con Control Numérico . . . . .	75
<b>Prentsa hidraulikoak</b>	
Prensas Hidráulicas . . . . .	79
<b>Zatikako biraketadun prentsa mekanikoak</b>	
Prensas Mecánicas de Revolución Parcial . . . . .	85
<b>Erabateko biraketadun prentsa mekanikoak</b>	
Prensas Mecánicas de Revolución Total . . . . .	91
<b>Tolestatzeako prentsak</b>	
Prensas Plegadoras . . . . .	95
<b>Barrualdeak eta kanpoaldeak artezteko makina zilindrikoak</b>	
Rectificadoras Cilíndricas de Exteriores e Interiores . . . . .	99
<b>Artezteko makina lauak</b>	
Rectificadoras Planas . . . . .	105
<b>Erdigunerik gabeko artezteko makinak</b>	
Rectificadoras sin Centros . . . . .	109
<b>Zerra alternatiboak</b>	
Sierras Alternativas . . . . .	113
<b>Zinta horizontaleko zerrak</b>	
Sierras de Cinta Horizontal . . . . .	117
<b>Zinta bertikaleko zerrak</b>	
Sierras de Cinta Vertical . . . . .	121
<b>Trontzatzeko zerrak</b>	
Sierras Tronzadoras . . . . .	125
<b>Zutabe erako zulatzeko makinak</b>	
Taladros de Columna . . . . .	129
<b>Zulatzeko makina erradialak</b>	
Taladros Radiales . . . . .	133
<b>Arrabolez zapaltzeko eta hariztatzeko tornu paraleloak</b>	
Tornos Paralelos de Cilindrar y Roscar . . . . .	137
<b>Tornu bertikalak</b>	
Tornos Verticales . . . . .	141

## INTRODUCCIÓN

La Fundación INVEMA junto con OSALAN preocupados por como influye la situación de los equipos de trabajo en la seguridad y salud de los trabajadores, y concededores del parque de maquinaria que hay en las empresas, decidieron elaborar un manual - guía de recomendaciones para que las mismas cumplan con las exigencias del Real Decreto 1215/97.

En este manual se especifican las medidas a adoptar para cumplir las disposiciones mínimas de seguridad que marca el anexo I del R.D. 1215/97. Consta de dos partes:

1. Parte General: Da soluciones de tipo general para cada uno de los puntos del anexo I del R.D. 1215/97.
2. Máquinas-Herramienta para trabajar los metales en frío: Da soluciones específicas para cada uno de los puntos del anexo I del R.D. 1215/97 en 27 tipos de máquinas-herramienta distintas.

## SARRERA

INVEMA Fundazioak OSALANekin elkarlanean, metalak hotzean lantzeko makinak 1215/97 Errege Dekretuan finkatutako betebeharrak guztiekin bat etortzeko moduan egokitzeko gomendioak jasotzen dituen eskuliburu moduko gida hau argitaratzea erabaki zuen, langileen segurtasunean eta osasunean lan-ekipoek duten eraginaren gaineko kezkarik erantzunez, eta enpresetan dauden makinariaren gaineko ezagutza sakona izanik.

Eskuliburu honetan, 1215/97 EDko I. eranskinean jasotako segurtasunari buruzko gutxieneko neurriak betetzeko hartu beharreko neurriak zehazten dira. Bi zatiz osatzen da eskuliburu hau:

1. Zati orokorra: Konponbide orokorrak ematen ditu 1215/97 EDko I. eranskinean jasotako puntu bakoitzarekin bat etortzeko.
2. Metalak hotzean lantzeko makina-erremintak: 1215/97 EDko I. eranskinean jasotako puntu bakoitzarekin bat etortzeko konponbide zehatzak ematen ditu, 27 makina-erreminta desberdin egokitzeko.



# 1.

## ZATI OROKORRA

---

### PARTE GENERAL

#### **Makinei ezarri beharreko gutxieneko xedapen orokorrak**

Disposiciones mínimas generales  
aplicables a las máquinas

## 1. ÓRGANOS DE ACCIONAMIENTO

Los órganos de servicio de un equipo de trabajo deben ser claramente visibles e identificables y, en caso necesario llevar un etiquetado apropiado.

Colores indicativos:

- Puesta en marcha/puesta en tensión BLANCO
- Parada/puesta fuera de tensión NEGRO
- Parada de emergencia ROJO
- Supresión de condiciones anormales AMARILLO
- Rearme AZUL

Tipos de órganos de mando:

- *Pulsador*: Salvo el de parada deben de estar encastrados
- *Pedal*: Protegido contra accionamientos involuntarios
- *Barra*: No debe utilizarse salvo para la función de parada.
- *Mando a dos manos*: Debe tener sincronismo y eficaz contra el burlado. Serán tipo pulsador.

Posicionamiento:

- Situados en la proximidad del puesto de mando y fuera de la zona de peligro, salvo el de parada de emergencia.

## 1. ERAGITE-ORGANOAK

Lan-ekipo bateko zerbitzu-organoak argi eta garbi ikusi eta bereizi egin behar dira eta, horretarako, dagokien etiketatxoa ipiniko zaie, behar izanez gero.

Kolore adierazgarriak:

- Abiaraztea/tentsioan jartzea: ZURIA
- Geldialdia/tentsioz kanpo jartzea: BELTZA
- Larrialdiko geldialdia: GORRIA
- Ez-ohiko baldintzak ezabatzea: HORRIA
- Birmuntaketa: URDINA

Eragite-organo motak:

- *Sakagailua*: Makina geldiaraztekoak izan ezik, gainerakoek ahokatuta egon behar dute
- *Pedala*: Nahigabeko eragintzak saihesteko babestuta egon behar du
- *Barra*: Ez da erabiliko, makina geldiarazteko izan ezik
- *Bi eskuko agintea*: Sinkronismoa izan behar du eta eraginkorra izan behar du burlatuaren aurka. Sakagailu motakoa izango da

Posizionamendua:

- Aginte-postuaren inguruan eta arrisku-eremutik kanpo kokatu behar dira, larrialdiko geldialdian izan ezik.

- Desde el puesto de mando se dominará toda la zona de operación, en caso contrario la puesta en marcha debe ser precedida de alguna señal de advertencia acústica o visual.
- Aginte-postutik eragite-eremu guztia ikusiko da, bestela, makinak abiarazi aurretik, ikusmenaz edo entzumenaz hautematen den oharterazpenen bat egin beharko da.

## 2. PUESTA EN MARCHA

La puesta en marcha debe obedecer a una acción voluntaria del operador sobre un órgano de accionamiento puesto a tal fin.

Tras un corte de energía (eléctrica, neumática, hidráulica), su posterior reanudación no deberá dar lugar a la puesta en marcha de las partes peligrosas del equipo de trabajo.

Se debe impedir que un equipo de trabajo se pueda poner en marcha:

- Por el cierre de un resguardo con dispositivo de enclavamiento.
- Cuando una persona se retira de una zona cubierta por un dispositivo sensible, tal como una barrera inmaterial.
- Por la maniobra de un selector de modo de funcionamiento.
- Por el desbloqueo de un pulsador de parada de emergencia.
- Por el rearme de un dispositivo de protección térmico, salvo en ausencia de riesgo.

En equipos de trabajo portátiles, el órgano de puesta en marcha deberá ser tipo sensitivo, de forma que la parada tenga prioridad sobre la puesta en marcha al soltar el órgano de mando.

## 2. ABIARAZTEA

Makinak abiarazteko, langileak berriaz eragin beharko dio horretarako egokitutako eragite-organoren bati.

Energia-etenaldi bat egon ondoren (elektrikoa, pneumatikoa edo hidraulikoa), energia berriri indarrean jartzean, lan-ekipokoko zati arriskutsuak ez dira zuzenean abiaraziko.

Lan-ekipoak abiaraztea eragotzi beharko da:

- Katigamendu-gailua duen babesgailu baten bidez itxiaz.
- Pertsona bat gailu sentikor batez es-talitako eremu batetik ateratzean, esaterako, hesi inmaterial batez inguratutako eremu batetik.
- Funtzionamendu-modua aukeratzeko hautagailu bati eraginez.
- Larrialdiko geldialdia eragiteko saka-gailu bat desblokeatuz.
- Babesgailu termiko bat birmuntatuz, arriskurik ez dagoenean izan ezik.

Lan-ekipo eramangarrietan, makina abiarazteko organoak sentikorra izan beharko du, eta hala, eragite-organoa askatuz gero, lehenago geldiaraziko da abiarazi baino.

### 3. PARADA

La orden de parada debe tener prioridad sobre todas las demás.

Tipos de parada:

- *Parada general:* Todo equipo de trabajo debe tener una parada de CATEGORÍA 0 (supresión inmediata de la energía de los accionadores de la máquina).
- *Parada desde el puesto de trabajo:* Esta función de parada está destinada a permitir que un operador pueda parar el equipo de trabajo cuando deba intervenir en una zona peligrosa, para una operación puntual.

Este tipo de parada puede ser de:

CATEGORÍA 1: al ordenar la función de parada ésta se produce cuando el equipo de trabajo se halla en posición de seguridad (por ejemplo cuando termina el ciclo).

CATEGORÍA 2: al ordenar la función de parada el equipo de trabajo para en ese momento pero mantiene sus fuentes de energía activadas.

- *Parada de emergencia:* Un dispositivo de parada de emergencia debe permitir parar una máquina en las mejores condiciones posibles, es decir, mediante una deceleración óptima de los elementos móviles.

Esta parada puede ser de CATEGORÍA 0 o de CATEGORÍA 1 en función del tipo de máquina.

El órgano de mando que permite obtener esta función de parada de emer-

### 3. GELDIALDIA

Gelditzeko aginduak lehentasuna izango du gainerako agindu guztien aurretik.

Geldialdi motak:

- *Geldialdi orokorra:* Lan-ekipo guztiek 0. KATEGORIAko geldialdia (makinako eragileen energiaren berehalako etenaldia) eragiteko gailua eduki behar dute.
- *Lanpostutik eragindako geldialdia:* Gelditze-funtzio honen bidez, langileek lan-ekipoa geldiarazi ahal izango dute, unean uneko eragiketaren bat burutzeko, arrisku-eremuan lan egin behar izanez gero.

Mota hauetako geldialdiak ondoko kategorietakoak izan daitezke:

1. KATEGORIA: Gelditzeko funtzioari eragitean, segurtasun-posizioan dagoenean (zikloa amaitzean, adibidez) gelditzen da lan-ekipoa.

2. KATEGORIA: Gelditzeko funtzioa agindutakoan, orduantxe gelditzen da lan-ekipoa, baina energia-iturriek piztuta jarraitzen dute.

- *Larrialdiko geldialdia:* Larrialdiko geldialdia eragiteko gailuak makina baldintza egokienetan geldiarazteko aukera eman behar du, hau da, elementu higikorren dezelerazio optimoaren bidez.

Larrialdiko geldialdi hau 0. KATEGORIAkoa edo 1. KATEGORIAkoa izan daiteke, makina-motaren arabera.

Larrialdiko geldialdia eragiteko agente-organoak ("esku-zartada" bidezkoa,

gencia (pulsador de “manotazo”, cable, barra,...) debe ser de color rojo y preferentemente colocado sobre un fondo amarillo.

En realidad, tratándose en particular de máquinas en servicio, la colocación de un dispositivo de parada de emergencia sólo tiene sentido en el caso de que el tiempo de parada que permite obtener sea netamente más corto que el obtenido con la parada normal, lo que requiere un frenado eficaz.

#### **4. CAÍDA DE OBJETOS Y PROYECCIONES**

Se pretende prevenir los riesgos mecánicos generados por la caída o la proyección de objetos o materiales provenientes del equipo de trabajo. Estos pueden ser objetos, cuya caída o proyección viene ligada al funcionamiento del equipo de trabajo u objetos que de forma previsible pueden salir proyectados o caer accidentalmente.

Las medidas preventivas a adoptar estarían destinadas a proteger no sólo a los operadores sino también a cualquier otra persona que pueda estar expuesta a estos peligros.

Consistirían esencialmente en proveer a los equipos de trabajo de guardos fijos o móviles de adecuada resistencia y/o de colocar obstáculos o cualquier otro medio para impedir que las personas próximas puedan estar expuestas a estos riesgos.

En el caso de equipos de trabajo que manipulen piezas en suspensión se to-

kable edo barraduna,...) kolore gorrikoa izan behar du eta ahal delarik hondo hori baten gainean kokatuta behar du.

Berez, zerbitzuan dauden makinak erabiltzean, larrialdiko geldialdia eragiteko gailua ondorengo kasuan jarriko da soilik: baldin eta makina gailu horren bidez gelditzeko behar den denbora, gelditzeko gailu arruntarekin lortzen dena baino nabarmen murriztagoa baldin bada, eta horretarako, balaztaketa eraginkorra beharko da, beraz.

#### **4. OBJEKTUEN ERORKETA ETA JAURTIKETAK**

Lan-ekipoko objektuen edo materialen erorketak edo jaurtiketak eragindako arrisku mekanikoak saihestea da helburua. Objektu hauek lan-ekipoaren funtzionamenduaren ondorioz erori edo jaurtiki daitezke, edo ezustean erori edo aurreikusitako moduan jaurtiki daitezke bestela.

Erorketa edo jaurtiketa horiek eragozteko hartu beharreko neurrien bidez, langileak ezezik, horrelako arriskuak jasari ditzaketen gainerako pertsonak ere babestu behar dira.

Funtsean, lan-ekipoetan behar besteko erresistentzia duten babesgailu finkoak edo higikorak ipini behar dira, edo bestela, makinaren inguruan ari diren pertsonak honelako arriskurik jasatea eragozteko oztopoak edo antzeko bitartekoak ipini beharko dira.

Esekitako piezak lantzen dituzten lan-ekipoek dagokienez, neurri egokiak har-

marán medidas adecuadas para evitar la caída de los mismos incluso en caso de cortes de energía.

## **5. RIESGO DE EMISIÓN DE GASES, VAPORES, LIQUIDOS O POLVOS**

Cuando exista el riesgo en un equipo de trabajo de emisión de gases, vapores, líquidos o polvos, como regla general se tratará de efectuar la captación de los mismos en su origen, por lo cual se tratará de integrar en el diseño de los resguardos o carcasas los elementos de captación y extracción.

Se estudiará en cada caso particular el tipo de emisión existente y en función de ello se diseñará el elemento extractor o captor y sus características, tales como, instalación eléctrica, vía húmeda o seca, mangueras, filtros, depósitos de recogida...

## **6. MEDIOS DE ACCESO Y PERMANENCIA**

Cuando la utilización de un equipo de trabajo requiere la presencia de uno o varios operarios sobre el mismo y en particular en zonas de peligro de caída de altura de más de 2 metros, debe dedicarse una especial atención tanto a los medios de acceso como a las zonas de permanencia.

Las características de los medios de acceso, plataformas y barandillas se

tu beharko dira pieza horien erorketa galarazteko, baita energia-etenaldirik gertatuz gero ere.

## **5. GASAK, LURRINAK, LIKIDOAK EDO HAUTSAK ISURTZEKO ARRISKUA**

Lan-ekipo batek gasak, lurrinak, likidoak edo hautsak isurtzeko arriskua dagoenean, isuritakoa biltzen saiatu beharko da, oro har, eta horretarako, gasak, lurrinak, likidoak edo hautsak biltzeko eta husteko elementuak babegailu edo karkasen diseinuan xertatzen saiatu beharra dago.

Kasuan kasuko isurketak aztertuko dira, eta horien arabera, bildu eta husteko elementu egokia diseinatuko da, hala nola, instalazio elektrikoa, hustubide heze edo lehorra, mahukak, iragazkiak, edukiontzia...

## **6. MAKINAN SARTU ETA BERTAN EGOTEKO INGURUNEAK**

Lan-ekipo bat erabiltzeko, ekipo horren gainean langile batek edo gehiagok jardun behar baldin badute, eta bereziki, 2 metrotik gorako altueratik erortzeko arriskua dagoen eremuetan, arreta bereziz zaindu beharko dira lan-ekiporako sarbideak eta bertan egoteko eremuak.

Sarbide, plataforma eta baranden ezaugarriak, 486/1997 Errege Dekre-

realizarán de acuerdo a lo establecido en el Real Decreto 486/1997 sobre lugares de trabajo.

## 7. ESTALLIDOS, ROTURAS

Se entiende que en un equipo de trabajo ya instalado, el riesgo de estallido o rotura se deriva de un mantenimiento inadecuado o de un envejecimiento de los materiales del equipo. Por ello, las medidas preventivas a adoptar deberán ser:

- Respetar las condiciones de utilización de estos equipos tal como son recomendadas por los fabricantes.
- Dedicar un atento cuidado al mantenimiento, especialmente cuando no es posible colocar resguardos eficaces.

## 8. ELEMENTOS MÓVILES

Los elementos móviles de un equipo de trabajo pueden ser elementos móviles de transmisión o elementos móviles que intervienen en el trabajo.

### Elementos móviles de transmisión:

Estarían en este grupo, los árboles de transmisión, correas, poleas, rodillos, cadenas, cables, bielas.

Excepto para operaciones de mantenimiento, generalmente no es necesario, durante el funcionamiento normal de una máquina, el acceder a estos órganos en movimiento. Es preciso por tanto impedir que puedan ser alcanzados. La solución más simple consiste en co-

tuar lantokiei buruz finkatutakoarekin bat etorri zehaztuko dira.

## 7. EZTANDAK, HAUSTURAK

Dagoeneko instalatutako lan-ekipo batean eztandak edo hausturak egoteko arriskua, mantentze okerrari edo ekipo-ko materialen zaharkitzeari zor zaizkie- la ulertzen da. Horregatik, ondoko neurriak hartu beharko dira horrelako arazorik sortzea eragozteko:

- Ekipo hauek erabiltzeko baldintzak betetzea, ekipoen fabrikatzaileek gomendatutakoari jarraiki.
- Lan-ekipoak kontu handiz zaintzea, bereziki babesgailu eraginkorrek ipintzerik ez dagoenean.

## 8. ELEMENTU HIGIKORRAK

Lan-ekipo bateko elementu higikorrek bi motatakoak izan daitezke: transmisio-elementu higikorrek edo lanean parte hartzen duten elementu higikorrek.

### Transmisio-elementu higikorrek:

Multzo honen barruan, ardatz eragileak, uhalak, poleak, arrabolak, kateak, kableak eta bielak ditugu, besteak beste.

Mantentze-lanetarako izan ezik, ez da behar izaten, makina funtzionamendu arruntean ari den bitartean, higitzen ari diren organo horietara hurbiltzea. Horregatik, eragotzi egin behar da organo horietaraino iristeko aukera. Horretarako konponbiderik errazena elementu

locar resguardos fijos que puedan aislar totalmente los elementos peligrosos o bien suprimir localmente el riesgo.

De ser necesario el acceder frecuentemente a ciertos órganos de transmisión, es preciso recurrir a resguardos móviles equipados con un dispositivo de enclavamiento o con dispositivos de sensor.

En la práctica las máquinas antiguas están a menudo equipadas con resguardos móviles, sin enclavamiento eléctrico, que permiten acceder a los órganos de transmisión de movimiento, este caso es particularmente frecuente en numerosas máquinas-herramientas en funcionamiento.

Es preciso entonces:

O bien transformar este resguardo móvil en fijo si la frecuencia es pequeña o bien equipar este resguardo con una cerradura con llave.

Equipar este resguardo con un dispositivo de enclavamiento asociado.

#### **Elementos móviles de trabajo:**

Son aquellos elementos que ejercen directamente una acción sobre el material y desarrollan su actuación en la zona de operación.

Desde el punto de vista de prevención hay que considerar tres casos:

1. *Que pueda hacerse totalmente inaccesible la zona de trabajo.*

Para alcanzar este objetivo la solución más frecuente consiste en equipar al equipo de trabajo con:

arriskutsuak guztiz isolatzen duten babesgailu finkoak ipintzea izan daiteke, edo arriskua sortzen deneko tokia bera isolatzea.

Transmisore jakin batzuetara maiz hurbildu behar izanez gero, katigamendugailuez edo sentsore bidezko gailuez hornitutako babesgailu higikorrek erabili beharko dira.

Berez, makina zaharrek katigamendu elektrikorik gabeko babesgailu higikorrek izaten dituzte askotan, eta horiek transmisoreetara hurbiltzeko aukera ematen dute. Hala gertatzen da jardunean dauden makina-erreminta ugaritan.

Orduan, ondokoren bat egin beharko da ezinbestean:

Babesgailu higikorra finko bihurtu, maiztasuna txikia bada, edo babesgailua giltzaz ixteko sarraila duen babesgailu batez hornitu.

Babesgailuan katigamendu-gailu atxiki bat ipini.

#### **Lan-elementu higikorrek:**

Materialaren gainean zuzenean eragin eta beren jarduera eragite-eremuan burutzen duten elementuak ditugu hauek.

Prebentzioari dagokionez, hiru kasu hartu beharko dira aintzakotzat:

1. *Lan-eremua guztiz hurbilezina egin ahal izatea.*

Horretarako, makinan ondoko osagaiak ipintzea izaten da konponbiderik arruntena:



Resguardos fijos en las partes en las que no es necesario acceder más que excepcionalmente o con poca frecuencia.

Resguardos móviles para permitir la carga y/o descarga manual de las piezas. Estos deben estar asociados a un dispositivo de enclavamiento o enclavamiento y bloqueo si los riesgos lo justifican.

Equipos de protección electrosensibles (ESPS), mandos bimanuales...

### 2. *Accesibilidad parcial a los elementos móviles de trabajo.*

Cuando no es posible impedir totalmente el acceso a los elementos móviles de trabajo es preciso, como en el caso precedente, equipar con resguardos fijos las partes de la zona de trabajo o del utillaje a las que no es necesario acceder y colocar resguardos móviles, fácilmente regulables, sobre la parte activa del elemento de trabajo.

### 3. *Accesibilidad inevitable a los elementos móviles de trabajo.*

En este caso las medidas que pueden tomarse para reducir las consecuencias de un accidente son:

- Limitación de las velocidades.
- Utilización de dispositivos de parada de emergencia dispuestos estratégicamente junto al operario.

En operaciones especiales como cambio de utillaje, regulación, etc. en los que hay que tener el elemento móvil accesible se deberá disponer de medidas de protección complementa-

Oso noizean behin iritsi beharreko zatietan, babesgailu finkoak ipintzea.

Piezak eskuz kargatu eta deskargatzeko aukera ematen duten babesgailu higikorrek ipintzea. Babesgailu hauek katigamendua edo katigamendua eta blokeaketa, sor litekeen arriskuak hala eskatuz gero, eragiteko gailu batekin lotuta egon beharko dute.

Babes-ekipo elektrosentikorra (ESPS), bi eskuko aginteak...

### 2. *Lan-elementu higikorren arteko batzuetara hurbildu ahal izatea.*

Lan-elementu higikorretara hurbiltzea guztiz eragozteaz ezinezkoa denean, aurreko kasuan bezala, hurbildu beharrik ez dagoen lan-eremuetan edo lanabesen eremuetan babesgailu finkoak ipini beharko dira, eta lanean ari den elementuaren zati aktiboaren gainean, erraz erregulatu daitezkeen babesgailu higikorrek ipiniko dira.

### 3. *Lan-elementu higikorretara hurbiltzea ezinbestekoa izatea.*

Kasu honetan, arriskuak sortzeko aukerak murrizteko, ondoko neurriak hartu beharko dira:

- Abiadurak murriztea.
- Larrialdiko geldialdia eragiteko gailuak erabiltzea. Gailuok langilearen ondoan ipiniko dira estrategikoki.

Lanabesen aldaketa, erregulazioa eta antzeko eragiketa bereziak burutzeko elementu mugikorrera hurbiltzea ezinbestekoa izanik, babeserako neurri osagarriak hartu beharko dira, hala

rias, tales como, mando sensitivo, a impulsos, etc.

## 9. ILUMINACIÓN

El objetivo es asegurar en cada puesto de trabajo o de intervención un nivel de iluminación adecuado teniendo en cuenta el trabajo a realizar y la naturaleza del puesto. Es evidente que este nivel será muy diferente según que se trate, por ejemplo, de un simple puesto de carga sobre máquina o de un puesto de trabajo en micromecánica de alta precisión.

A título indicativo se tendrán en cuenta los niveles de iluminación indicados en el anexo IV del R.D. 486/1997 sobre lugares de trabajo.

Para alcanzar los niveles de iluminación adecuados se puede optar por:

- Utilizar la iluminación ambiente natural o artificial presente en el lugar de trabajo, en la medida en que ésta sea suficiente.
- Colocar localmente en el puesto de trabajo un aparato adicional de iluminación fijado en permanencia.
- Cuando se trate de zonas en las que tengan lugar intervenciones poco frecuentes tales como operaciones de mantenimiento, asegurarse de que una toma de corriente situada en la máquina o en su proximidad permita la conexión de una lámpara transportable.

En lo referente a los equipos de iluminación integrados en las máquinas se recomienda utilizar una tensión de ali-

nola, agente sentikorra, bulkada bidezko agentea, eta beste.

## 9. ARGIZTAPENA

Lanpostu edo eragite-gune bakoitzean argiztapen-maila egokia ziurtatu behar da, burutu beharreko lana eta lanpostua nolakoak diren kontuan hartuta. Gauza jakina da, beraz, argiztapen-maila hori egokitu egingo dela makinan egin beharreko lanaren arabera; esaterako, ez da gauza bera makinaren gaineko kargatze-lanpostu soil bat izan edo doitasun handiko mikromekanika burutzeko lanpostua izan.

Jarraibide gisa, 486/1997 EDko IV. eranskinan, lantokiei buruzkoa, finkatutako argiztapen-mailak hartuko dira aintzakotzat.

Argiztapen-maila egokia lortzeko ondoko aukerak ditugu:

- Lantokian dagoen argiztapen naturala edo artifiziala erabiltzea, behar bestekoa den heinean.
- Lanpostuan argiztatzeko gailu osagarri bat ipintzea, modu iraunkorrean finkatua.
- Ez-ohiko ekintzak, muntaketa-lanak esaterako, burutzen direneko eremuak ditugunean, makinan bertan edo inguruan lanpara garraiarri bat konektatzeko argindar-hartuneren bat badagoela ziurtatu beharko da.

Makinan bertan txertatutako argiztapen-ekipoei dagokienez, 50 Vtik beherako elikatze-tentsioa erabiltzea kome-

mentación inferior a 50 V. Sin embargo al tratarse de material ya en servicio, se admite utilizar una tensión superior presente en la máquina (120 V. ó 230 V.), salvo en medio húmedo

- Se recomienda igualmente evitar el empleo de tubos fluorescentes para evitar efectos estroboscopios peligrosos en ciertas máquinas.

## 10. SUPERFICIES CALIENTES O MUY FRÍAS

La temperatura superficial a considerar para evaluar el riesgo depende de la naturaleza del material (metal, material plástico,...) y de la duración del contacto con la piel. A título indicativo, en el caso de una superficie metálica lisa, se admite generalmente que no existe riesgo de quemadura por contacto involuntario (máximo 2 a 3 segundos) si su temperatura no excede de 65° C. Por debajo de esta temperatura no es necesario por tanto la aplicación de medidas de seguridad.

En el caso de que exista un riesgo significativo, se pueden aplicar una o varias de las medidas siguientes, siempre que no interfieran en el proceso de trabajo:

- Colocación de un aislante térmico alrededor de los elementos peligrosos.
- Adaptación de resguardos para permitir la evacuación de calorías (rejillas, chapa perforada,...).

ni da. Hala ere, zerbitzuan dagoen materialarekin, makinako tentsio handiagoa erabil daiteke (120 V edo 230 V), ingurune hezeetan izan ezik.

- Era berean, hodi fluoreszenterik ez erabiltzea komeni da, zenbait makinetan arriskutsuak gerta daitezkeen efektu estroboskopikoak saihesteko.

## 10. GAINAZAL BEROAK EDO OSO HOTZAK

Gainazal baten temperaturak eragindako arriskua aldatu egiten da gainazal hori zerez egina (metala, material plastikoa...) dagoen arabera, batetik, eta larruazalarekiko ukipenean zenbat denbora dagoen arabera, bestetik. Adibidez, gainazal metaliko lau bat dugunean, ez da egoten nahigabeko ukimenaren bidez (2-3 segundo bitartekoa) erretzeko arriskurik, gainazal horren temperatura 65° C baino handiagoa ez denean. Temperatura horretatik behera ez da, beraz, segurtasun-neurririk hartu beharrik izango.

Arrisku nabarmenik egonez gero, ondoko neurrietako bat edo gehiago har daitezke, baldin eta lan-prozesua eragozten ez badute:

- Isolatzaile termiko bat ipintzea elementu arriskutsuen inguruan.
- Babesgailuak egokitzea, kaloriak hustea ahalbidetzeko (burdinsareak, xafla zulatuak,...).

- Supresión global de acceso a la zona peligrosa mediante barandillas o cualquier otro tipo de resguardo material.
- Aplicación de cortinas de aire o de agua.

En el caso en que las superficies deban estar calientes y accesibles, será necesario utilizar los equipos de protección individual apropiados. A este respecto debe aplicarse el R.D. 773/1997 de 30 de Mayo sobre: utilización de equipos de protección individual.

## 11. DISPOSITIVOS DE ALARMA

En aquellas máquinas complejas en las que desde el puesto de mando no se puedan controlar las diversas zonas de operación, se instalarán señales de alarma que deberán ser perceptibles y comprensibles y sin ambigüedades.

Cuando la interrupción del proceso de trabajo de un equipo, pueda generar algún tipo de riesgo deberá colocarse algún dispositivo de alarma con las condiciones anteriormente citadas.

## 12. SEPARACIÓN DE LAS FUENTES DE ENERGÍA

El objetivo de este apartado es obtener que se pueda, en cada máquina, mediante una consignación, intervenir sin riesgo, particularmente para las operaciones de mantenimiento (revisión, reparación, limpieza...).

- Arrisku-eremurako sarbidea guztiz galaraztea, barandak edo bestelako babesgailu materialak ipiniz.
- Aire- edo ur-gortinak ezartzea.

Gainazalak bero egon eta hurbilerrazak izan behar izanez gero, banakako babes-ekipo egokiak erabili beharko dira. Azken horiei dagokienez, aintzakotzat hartu beharrekoa da maiatzaren 30eko 773/1997 EDa, banakako babes-ekipoen erabilerari buruzkoa.

## 11. ALARMA-GAILUAK

Aginte-postutik eragite-eremu guztiak kontrolatzerik ez dagoen makina konplexuetan, alarma-seinaleak ipiniko dira. Alarma horiek argi eta garbi haute-man eta ulertzeko modukoak izan beharko dute.

Ekipo baten lan-prozesua etenda arriskuren bat sortuko balitz, goiko ezaugarriak dituen alarma-gailu bat ipini beharko da.

## 12. ENERGIA ITURRIEN BEREIZKETA

Atal honen helburua hauxe da: makina bakoitza, kontsignazio baten bidez, arriskurik gabe aritu ahal izatea lortzea, bereziki mantentze-jarduerei dagokieenez (berrikusketa, konponketa, garbiketa...).

La consignación de una máquina incluye fundamentalmente:

La separación de todas sus fuentes de energía: eléctrica, neumática, hidráulica, mecánica y térmica.

La condenación, es decir el enclavamiento de los dispositivos de separación, cuando haya riesgo de restablecimiento imprevisto de la energía.

La disipación de las energías acumuladas.

### **Energía eléctrica:**

En lo referente a la energía eléctrica, la separación puede quedar asegurada mediante:

- Un seccionador
- Un seccionador equipado con contactos de precorte.
- Un interruptor-seccionador.
- Un disyuntor que disponga de la función de seccionado.
- Una toma de corriente para una intensidad inferior o igual a 16 A y una potencia total inferior a 3 KW.

La utilización de un seccionador debe ser objeto de una atención particular ya que este aparato está concebido para funcionar en vacío y puede explotar si es maniobrado en carga tras una falsa maniobra. Los seccionadores equipados con contactos de precorte permiten eliminar este riesgo en la medida en que estos contactos estén conectados correctamente.

Los dispositivos de separación deben, por su tecnología, ofrecer todas las ga-

Makina baten kontsignazioa egiteko, ondoko urratsak eman behar dira nagusiki:

Energia-iturri guztiak bereiztea: elektrikoa, pneumatikoa, hidraulikoa, mekanikoa eta termikoa.

Makina finkatzea, hau da, energiak bereizteko gailuak ondo lekutzea, energia ezustean berriro ere indarrean sartzeko arriskua dagoenean.

Metatutako energiak desagertaraztea.

### **Energía elektrikoa:**

Energía elektrikoari dagokionez, ondoko bidez burutu daiteke bereizketa:

- Ebakigailu bat.
- Ebaki aurreko kontaktuez hornitutako ebakigailu bat.
- Etengailu-ebakigailu bat.
- Ebakitze funtzioa duen disyuntore bat.
- 16 A edo gehiagoko intentsitatea eta 3 KWtik beherako potentzia osorako korrante-hartune bat.

Ebakigailu bat erabiltzean, arreta handiz aritu behar da, hutsean lan egiteko eginda baitaude honelako objektuak, eta eztanda egin lezakete, maniobra okerren baten ondoren kargatuta dagoela erabiliz gero. Ebaki aurreko kontaktuez hornitutako ebakigailuak erabiliz, arrisku hori sortzea eragotzi daiteke, baldin eta kontaktu horiek behar bezala konektatuta baldin badaude.

Energiak bereizteko gailuek berme osoa eman behar dute, aginte-organo-

rantías de que a cada posición (abierto/cerrado) del órgano de mando corresponda de forma inmutable la posición (abierto/cerrado) de los contactos. Esto es particularmente importante cuando los aparatos no sean de corte visible o de corte totalmente aparente.

La retirada de la clavija de una toma de corriente puede ser considerada como una acción equivalente a una consignación en cualquier máquina pequeña en la que se tenga la certeza de que esta ficha no podrá ser reinsertada en su zócalo con desconocimiento de la persona que interviene en la máquina.

### **Energía hidráulica y neumática:**

Para estas energías, el dispositivo de separación podrá ser un grifo, una válvula o un distribuidor de mando manual. En neumática un “enchufe rápido” puede ser utilizado con el mismo fin que la toma de corriente en electricidad para las máquinas de pequeña potencia.

### **Disipación de las energías**

La disipación de las energías acumuladas consiste fundamentalmente en purgar los acumuladores hidráulicos, vaciar los depósitos de aire comprimido (eventualmente las canalizaciones), descargar los condensadores.

Es preciso igualmente tener en consideración:

- El desplazamiento posible por gravedad de ciertos elementos (energía potencial).

aren posizio bakoitzak (irekita/itxita) kontaktuen posizioari (irekita/itxita) erantzuten diola betiere. Oso garrantzitsua da azken hau, erabiltzen ari garen aparailuak ebakidura ikusgarria edo ebakidura erabat agerikoa egiten duten motakoak ez direnean.

Korrante-hartune batetik larakoa kentzea, kontsignazioaren baliokidetzat ulertuko da, makinarekin lanean ari den pertsona jakinaren gainean egon gabe, fitxa hori berriro ere bere zokaloan sartzetik ez dagoela ziur dakigun edozein makinatan.

### **Energía hidráulikoa eta pneumatikoa:**

Energía hauen kasuan, energiak bereizteko gailu gisa, kanila, balbula edo eskuzko agintedun banagailu bat erabili ahal izango da. Energía pneumatikoari dagokionez, “entxufe bizkor” bat erabili ahal izango, potentzia gutxiko makinetarako elektrizitatea hartzeko hartuneak erabiltzen diren xede bererako.

### **Energiak desagertaraztea**

Metatutako energiak desagertarazteko, metagailu hidraulikoak purgatu, aire konprimaturako biltegiak hustu (eta behar izanez gero, hoditeria ere bai), eta kondentsadoreak deskargatu egin behar dira, besteak beste.

Era berean, ondoko alderdiak ere aintzakotzat hartu behar dira:

- Grabitatearen eraginez, zenbait elementu (energía potentziala) desplazatzea.

- La emisión de chorros de fluido bajo presión durante intervenciones sobre los circuitos hidráulicos mantenidos en carga.
- El contacto con piezas mantenidas bajo tensión a pesar del corte de alimentación de energía eléctrica (protección en el caso de sistemas electrónicos de mando por ejemplo).
- Fluido-zorrotaden presio bidezko isurketa, kargan mantendutako zirkuitu hidraulikoen gaineko ekintzetan.
- Energia elektrikoaren elikadura etenda ere, tentsiopean mantendutako piezekiko kontaktua (babesa, agintadun sistema elektronikoen kasuan, adibidez).

Con el fin de prevenir estos riesgos hay que poner a disposición de los trabajadores medios tales como:

- Puntales suficientemente resistentes y correctamente dimensionados para evitar por ejemplo la caída del carro de una prensa o el mantenimiento bajo presión de una cámara de cilindro hidráulico.
- Ganchos y eslingas para mantener las cargas.
- Pantallas dispuestas localmente para evitar proyecciones de fluidos o contactos con las partes mantenidas bajo tensión.
- Arrisku horiek eragozteko, hainbat birtarteko jarri behar dira langileen eskue-  
tan:
- Behar besteko erresistentzia duten eta behar bezala dimentsionatuta dauden puntelak, prentsa bateko orgaren erorketa eragozteko edo zilindro hidrauliko bat presiopean mantentzeko, adibidez.
- Kargak mantentzeko gakoak eta eslingak.
- Fluidoaren isurketa eta tentsiopean mantendutako zatiekiko kontaktuak eragozteko, makinan bertan ipinitako pantailak.

### 13. SEÑALIZACIÓN Y ADVERTENCIA

En aquellos casos de equipos de trabajo en los que tras adaptarles medidas de protección adecuadas persista un riesgo residual, éste deberá estar adecuadamente señalizado, mediante indicativos normalizados.

### 13. SEINALEZTAPENA ETA OHARTARAZPENA

Babeserako neurri egokiak ipini ondoren ere, oraindik ere arriskuren bat duten lan-ekipoetan, argi eta garbi adierazi behar da arrisku hori, adierazgarri normalizatuak erabiliz.

### 14. INCENDIO

### 14. SUTEA

## 15. EXPLOSIÓN

Estos riesgos pueden ser derivados de las características de las materias procesadas o del ambiente del entorno del equipo de trabajo.

En función de las mismas se deberán adoptar las medidas adecuadas. Considerando que uno de los factores principales de estos riesgos es la electricidad, deberá adecuarse el equipo eléctrico a las exigencias de la reglamentación en lo referente a la protección contra sobreintensidades y utilizar cuando sea necesario equipos eléctricos específicos para uso en atmósferas explosivas.

Deberá tenerse en cuenta los problemas de la electricidad estática.

Las medidas de prevención podrían ser:

- Evacuar los productos peligrosos aspirándolos en su origen.
- Encerrar estos productos en un espacio cerrado en el que el riesgo de elevación de temperatura o de producción de chispas no exista.
- Utilizar las técnicas de inactivado que consisten en modificar la composición de la atmósfera en la que se encuentra el producto para impedir que se inflame.
- Colocar dispositivos de control que permitan mantener automáticamente la atmósfera fuera del campo de inflamabilidad.

Cuando estos diferentes medios no pueden colocarse o no se consideren

## 15. LEHERKETA

Prozesatutako gaien edo lan-ekipoaren inguruko giroaren ezaugarrien eraginez sortu daitezke arrisku hauek.

Ezaugarri horien arabera neurri ego-kiak hartu beharko dira, bada. Arrisku hauek sortzeko faktore garrantzitsuetako bat elektrizitatea dela jakinik, intentsitateen aurkako babesari buruzko araudiak finkatutako betekizunetara egokitu beharko da ekipo elektrikoa, eta, hala dagokionean, atmosfera lehergarrietan berariaz erabiltzeko ekipo elektrikoak erabili beharko dira halaber.

Elektrizitate estatikoak eragindako arazoak ere aintzakotzat hartu beharko dira.

Prebentzio-neurrien artean, ondokoak ditugu:

- Produktu arriskutsuak hustu egin behar dira, jatorrian zurgatuz.
- Produktu hauek tenperatura igotzeko edo txinpartak sortzeko arriskurik gabeko espazio itxi batean gorde behar dira.
- Inaktibazio-teknikak erabili behar dira, hau da, produktua dagoen atmosferaren osaketa aldarazi, su har dezala galarazteko.
- Atmosfera suharberatasun-eremutik kanpo automatikoki mantentzea ahalbidetzen duten kontrolerako gailuak ipini.

Aurreko bitarteko hauek ipintzerik ez dagoenean, edo behar bezain eragin-



suficientemente eficaces se puede recurrir a dispositivos de seguridad automáticos mediante extintor o introducción masiva de un gas inerte.

## 16. RIESGO ELÉCTRICO

Todas las piezas de un equipo de trabajo bajo tensión deben estar protegidas contra contactos directos.

La puesta a tierra de los materiales debe estar asegurada, salvo caso particular (aparatos de doble aislamiento por ejemplo); los conductores de protección deben presentar una buena continuidad eléctrica (conductores no cortados y conexiones fiables) y llevar la doble coloración verde-amarilla.

Los diferentes grupos de las máquinas deben estar conectados en paralelo al conductor de protección y no en serie.

Una máquina o un equipo no debe poder ser objeto de un calentamiento susceptible de provocar un incendio; los dispositivos de protección contra sobretensiones deben ser verificados, cambiados o complementados de ser necesario.

El valor de la toma de tierra tiene que ser compatible con el umbral de los dispositivos diferenciales existentes.

En el caso en el que dificultades técnicas o económicas impidan realizar una toma de tierra eficaz, o si existe incertidumbre en cuanto a su valor, es posible, y en ciertos casos obligatorio colocar dispositivos diferenciales de alta sensibilidad.

korrak ez direla irudituz gero, segurtasun-gailu automatikoak erabil daitezke. Gailu hauek suitzalgailu bidezkoak izan daitezke edo, bestela, gas inerte bat masiboki isurtzen dutenak.

